

## GURE KAIOLA

## Glaukoma

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden  
 Zer da narratsa hemen ta zer da elegantea?  
 Zeinek esan behar dizu oain itsusia zeala?  
 Zeinek marraztu digu koadrantea? Zein dao  
 erotuta ta zein da kabala?

Ilusio bat da errealtatea, ta gizonen bizio bat denai  
 araua jartzea  
 Norbeantzako horma bat da  
 Normalitatea. Baino nik ez det izan nahi normala  
 Ta zuk ezta re!  
 Etzealako artalde hontako zifra bat, etzea sartzen  
 trajen  
 Gezurren saren eroitzeie makina bat, goitik  
 datorren papila jaten  
 Beldurren aurren  
 Heldu makila ta goazen, pareta mila dauzkeu ta  
 gure paren

Eta erreza ez dan arren  
 Kareta kenduta zaudenen... ai! Ez dakizu ze sexy  
 zauden  
 Ze guapo zauden mozorroik gabe, ta artaldek esan  
 dezala Beeee  
 Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo  
 danak hausten  
 Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola  
 zalantzan jartzen

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden  
 Gizontasun eredu nik izan nun Action Man,  
 Zure emetasun modelo Barbie bat zan  
 Eztao generoik genitaletan  
 Egitura mentala da, aber sartze zaigun gaztan!

Horregatik jartzen gaitue dietan  
 Ta danak die Barbie ta Ken telebista ta aldizkarietan  
 Hitzeite ez dun haurran begietan  
 Disney-en maitasunaren fabula. Ipuin honen hasiera  
 Nortasunen banaketan, zu woman eta ni man,  
 bakoitza bere ziegan  
 Nere heziketan dauden urrezko hesietan.

Zure etiketak dauzken gezur ariketak  
 Eredu bezela euki diteun figura  
 Patriarkalak. Pornografia izan da gure heziketa sexuala  
 Heteroarau honen aizkorakaden ezpala  
 Hau ez da gizarte naturala. Ez du izan nahi  
 Kapitalai halaxe komeni zaio, dominazio sistema  
 bereizketan jaio da  
 Testikulo gutxigo ta sentimendu gehio  
 Gizonezko bezela hautsi nahi det gure kaiola

Ze guapo zauden mozorroik gabe, ta artaldek esan  
 dezala Beeee  
 Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo danak  
 hausten  
 Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola  
 zalantzan jartzen  
 Ze guapo zauden. Ze guapo zauden

Ze guapo zauden mozorroik gabe, ta artaldek esan  
 dezala Beeee  
 Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo danak  
 hausten  
 Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola  
 zalantzan jartzen  
 Ze guapo zauden. Ze guapo zauden  
 Ze guapo zauden. Ze guapa zauden  
 Ze guapo zauden. Ze guapa zauden

## GURE KAIOLA (batura ekarrita)

### Glaukoma

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden  
 Zer da narratsa hemen ta zer da elegantea?  
 Zeinek esan behar dizu orain itsusia zarela?  
 Zeinek marraztu digu koadrantea? Zein dago erotuta  
 ta zein da kabala?

Ilusio bat da errealitatea, ta gizonen bizio bat denari  
 araua jartzea

Norberarentzako horma bat da  
 Normalitatea. Baina nik ez dut izan nahi normala  
 Ta zuk ezta ere!

Ez zarelako artalde honetako zifra bat, ez zara sartzen  
 trajean

Gezurren sarean erortzen den makina bat, goitik  
 datorren papila jaten

Beldurren aurrean

Heldu makila ta goazen, pareta mila dauzkagu ta  
 gure parean

Eta erraza ez den arren

Kareta kenduta zaudenean... ai! Ez dakizu ze sexy  
 zauden

Ze guapo zauden mozrorrik gabe, ta artaldeak esan  
 dezala Beeee

Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo  
 denak hausten

Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola  
 zalantzan jartzen

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden

Gizontasun eredu nik izan nuen Action Man,  
 zure emetasun modelo Barbie bat zen

Ez dago generorik genitaletan

Egitura mentala da, aber sartzen zaigun gaztan!

Horregatik jartzen gaituzte dietan

Ta denak dira Barbie ta Ken telebista ta aldizkarietan  
 Hitz egiten ez duen hauraren begietan

Disney-en maitasunaren fabula. Ipuin honen hasiera  
 Nortasunen banaketan, zu woman eta ni man,  
 bakoitza bere ziegan

Nire heziketan dauden urrezko hesietan.

Zure etiketak dauzkan gezur ariketak

Eredu bezala eduki ditugun figura patriarkalak.

Pornografia izan da gure heziketa sexuala

Heteroarau honen aizkorakaden ezpala

Hau ez da gizarte naturala. Ez du izan nahi

Kapitalari halaxe komeni zaio, dominazio sistema  
 bereizketan jaio da

Testikulo gutxiago ta sentimendu gehiago

Gizonezko bezala hautsi nahi dut gure kaiola

Ze guapo zauden mozrorrik gabe, ta artaldeak esan  
 dezala Beeee

Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo  
 denak hausten

Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola  
 zalantzan jartzen

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden

Ze guapo zauden mozrorrik gabe, ta artaldeak esan  
 dezala Beeee

Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo  
 denak hausten

Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola  
 zalantzan jartzen

Ze guapo zauden. Ze guapa zauden

Ze guapo zauden. Ze guapa zauden

Ze guapo zauden. Ze guapa zauden